Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1499

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 25ekoa, Ingurumen sailburuordearena, Marnemar, S.A. enpresak sustatuta, Deban «Duquesa» marmol-harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean duen eraginari buruzko adierazpena egiteko dena.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B) paragrafoan jasotako proiektuak ingurumenean duten eraginaren banan-banako ebaluazio-prozeduraren menpe daude. Prozedura horren ondorioz Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpena sortuko da. Adierazpena proiektu horiek egiteko edo baimentzeko hartuko den administrazio-ebazpenaren aurretik egingo da.

Deban, «Duquesa» marmol-harrobia ustiatzeko jarduera-lizentzia emateko prozedura hasi da, eta prozedura horren barruan besteak beste honako izapide hauek bete dira, Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuak eta hori garatzeko Araudia onesten duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz eta aipatutako xedapenak betez:

– Aurretiazko kontsultak. Proiektuaren sustatzaileak eskatuta, 1994ko azaroaren 10ean eta 2007ko otsailaren 12an, ingurumen organoak kontsultak egin zizkien administrazio interesdunei proiektuak ingurumenean izan zezakeen eraginari buruz, ondorengo araudian ezarritakoari jarraituz: irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuaren 13. artikulua eta ondorengoak. Errege Dekretu horren bidez onartu zen ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua garatzeko Erregelamendua, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzkoa. Kontsulta horien erantzunak sustatzaileari bidali zizkion Ingurumen Organoak, proiektuak ingurumenean duen eraginaren azterlana egiterakoan kontuan izan zitzan.

– Jendaurrean jartzeko izapidea. Proiektua bera eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana jendaurrean jarri ziren (2008ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 147. zenbakia).

– Espedientea bidaltzea. Aipatutako irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, Debako udalak espedientea bidali zuen Ingurumen Sailburuordetzara. 2008ko irailaren 30ean

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1499

RESOLUCIÓN de 25 de noviembre de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Explotación de la cantera de mármol «Duquesa», promovido por Marnemar, S.A., en Deba.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento para el otorgamiento de Licencia de Actividad a la cantera de mármol «Duquesa», en Deba, y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco como en el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y en el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en cumplimiento de las citadas disposiciones, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan:

– Trámite de consultas. Previa solicitud del promotor del proyecto, con fecha 10 de noviembre de 1994 y 12 de febrero de 2007, el órgano ambiental consultó a las administraciones interesadas en relación con el alcance del estudio de impacto ambiental, de acuerdo con en el artículo 13 y siguientes del Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución del Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental. El órgano ambiental remitió el resultado de dichas consultas al promotor del proyecto para su consideración en la elaboración del estudio de impacto ambiental.

– Trámite de información pública. El proyecto y el estudio de impacto ambiental fueron objeto de información pública (Boletín Oficial del Gipuzkoa n.º 147, de 4 de agosto de 2008).

– Remisión del expediente. El Ayuntamiento de Deba remitió el expediente a la Viceconsejería de Medio Ambiente de acuerdo con lo previsto en el artículo 16 del anteriormente citado Real Decreto 1131/1988,

ingurumen organoak egindako eskakizunak betez, espedientearen dokumentazioa osatu zen.

Erreferentziazko proiektuaren espedientean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertu dira; ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa zuzena dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitzen zaiela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena emateko eskumena duen organoa izanik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren arabera, ondokoa

EBATZI DU:

1.– Marnemar, S.A. enpresak sustatuta, Deban «Duquesa» marmol-harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean duen eraginari buruz aldeko adierazpena egitea.

2.– Proiektua gauzatzeko ondoren adieraziko diren baldintzak ezarri dira. Baldintza horiek lotesleak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 47.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

2.A.– Jarduera, Ingurumen Sailburuordetzari proiektuak ingurumenean izango duen eragina ebaluatzeko aurkeztu zaizkion agirietan adierazitakoari lotuz egin behar da, eta ebazpen honetan bildutako zehaztapenak aintzat hartuz.

Jardueraren eragineko eremuak honakoak izango dira: ustiategiaren aurre aldea, sarbideak, pistak, ondoko instalazioak eta biltegiak.

Ustiategiaren titularrak 1:1.000 eskalako plano topografiko bat landu beharko du ustiategiaren azken egoera adieraziz eta proiektu osoaren baitan burutuko diren ekintza guztiek gehienez hartuko duten espazio-eremua mugatuta; «Debako (Gipuzkoa) Duquesa marmol-harrobiak ingurumenean duen eraginaren Ebaluazioa» agirian jasotako behin betiko sarbideak ere kontuan izango dira. «II. Agiri osagarriak». Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko da, onesteko.

Ez da eraginik sortuko ezarritako mugaz gaindiko aldeetan, ez zuloak egiteko edo sarbide berriak behar direlako.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Haren bidez onartu zen Proiektuek ingurumenean duten eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina.

de 30 de septiembre. Con fecha 30 de septiembre de 2008, y en cumplimiento de los requerimientos formulados por el órgano ambiental, se completa la documentación del expediente.

Examinada la documentación técnica y los informes obrantes en el expediente del proyecto de referencia, y a la vista de que el estudio de impacto ambiental resulta correcto y se ajusta a los aspectos previstos en la normativa en vigor, la Viceconsejería de Medio Ambiente, órgano competente para el dictado de la presente Declaración de Impacto Ambiental de acuerdo con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,

RESUELVE:

1.– Formular la presente Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Explotación de la cantera de mármol «Duquesa», promovido por Marnemar, S.A., en Deba, con carácter favorable.

2.– Imponer las siguientes condiciones para el desarrollo de la actividad, las cuales son vinculantes de acuerdo con lo especificado en el artículo 47.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.A.– La actividad se desarrollará de acuerdo con la documentación presentada en esta Viceconsejería de Medio Ambiente para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, y con las determinaciones contenidas en esta Resolución.

El ámbito afectado por la actividad será el correspondiente a la explotación del frente de cantera, sus accesos, pistas, instalaciones anejas y zonas de acopios.

El titular de la explotación deberá elaborar un plano topográfico a escala 1:1.000 en el que se represente la situación final de la explotación y se delimite el ámbito espacial máximo del proyecto para el conjunto de acciones que se prevé desarrollar, incluyendo los accesos definitivos representados en el documento «Evaluación de impacto ambiental de la cantera de mármol Duquesa, sita en Deba, Gipuzkoa. Documentación complementaria II». Dicho plano será remitido a la Viceconsejería de Medio Ambiente para su aprobación.

En ningún caso podrán afectarse a zonas situadas fuera de los límites señalados, bien sea debido a la apertura del hueco o bien por necesidad de nuevas pistas o accesos.

2.B.– En los supuestos de cambios o ampliaciones del proyecto resultará de aplicación lo dispuesto en el artículo 16 del Real Decreto Legislativo 1/2008 de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, puesto en relación con el epígrafe 9.k) del anexo II de la citada norma.

2.C.–Neurri babesle eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak egitasmoaren titularrak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera gauzatuko dira. Era horretan, neurri hauek hartzeak, batetik, eta kontrolerako esleitutako pertsonalak, bestetik, azterketan ezarritako eta ingurumenaren gaineko eraginaren aitorpen honetan ezarritako kalitate-helburuak bermatu ahal izango dituzte. Ondorengo idatz-zatietan adierazitako neurriak gehitu beharko dituzte.

2.c.1.– Natura ondarea babesteko neurriak.

Gipuzkoako Mendiei buruzko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauan eta urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretuan —Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat landare-espezie babestekoan— ezarritakoa, eta horiez gain, ustiategiaren inguruan natura aldetik garrantzi handikoak diren guneetan dauden zuhaiztiak kaltetu ditzaketen jarduerak gauzatu behar direnean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendiak kudeatzeko eskumena duen organoak ezar ditzakeen neurriak ere bete beharko dira (9180* Hábitata: Mendi-magaletako basoak, lurjauziak edo Tilio-Acerion amildegiak; 91 E0* Habitata. Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior alubioi-basoak); neurri guztiak hartuko dira espazio horietan zuzeneko edo zeharkako kalterik ez eragiteko.

2.c.2.– Lastur errekastoko urak, lurzorua eta ekosistema babesteko neurriak.

Urari buruzko legerian xedatutakoa bete behar da. Arroetan eskumena duen erakundeak jabari publiko hidraulikoaren eta bere zortasunen gaineko jarduketei buruz eta efluente kutsatzaileak isurtzeari buruz baldintzarik jarriz gero bete egin behar dira. Horrez gain, ondoko neurri hauek bete behar dira:

2.c.2.1.– Lastur errekaren ertzetan burutuko diren jarduerak bat etorriko dira EAEko Ibaien Eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean xedatutakoarekin.

2.c.2.2.– Ustiategian sortutako isurketa-urentzako drainatze-sare bat eraiki beharko da ustiategi-zuloko isurketa-ur guztiak biltzeko, «Deban (Gipuzkoa) Duquesa marmol-harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean duen eraginaren Ebaluazioa. II. Agiri osagarria» agirian aurreikusitakoaren arabera; baita harrobiaren instalazioetan, sarbideetan eta gurpilak garbitzeko sisteman isurtzen diren isurketa-urak biltzeko ere.

Drainatze-sistema horren amaierako elementua dekantazio-putzuen sistema bat izango da. Putzua kalkulu hidraulikoen araberako neurrikoa izango da, bai solidoei eusteko, bai gune jakin batean isurketak egiteko eta uraren parametro fisiko-kimikoak indarrean dagoen araudira egokitzeko.

2.C.– Medidas protectoras y correctoras.

Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo propuesto en la documentación presentada por el titular del proyecto durante la Evaluación de Impacto Ambiental, de modo que el dimensionamiento de estas medidas y el personal asignado para el control garanticen los objetivos de calidad marcados en el estudio y los impuestos en la presente declaración de impacto ambiental. Deberán añadirse las medidas que se exponen en los apartados siguientes.

2.c.1.– Medidas destinadas a la protección del patrimonio natural.

Sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa, y en el Decreto Foral 4/1990 de 16 de enero, por el que se establece la protección de determinadas especies de la flora del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y de lo que, en su caso, establezca el órgano competente en materia de gestión de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa para aquellas actuaciones que puedan afectar a vegetación arbolada, en las zonas de la explotación próximas a las áreas de alto interés naturalístico (Hábitat 9180*: Bosques de laderas, desprendimientos o barrancos del Tilio-Acerion; Hábitat 91 E0*: Bosques aluviales de Alnus glutinosa y Fraxinus excelsior) deberán extremarse las precauciones para evitar afecciones directas o indirectas sobre dichos espacios.

2.c.2.– Medidas destinadas a la protección de las aguas, el suelo y del ecosistema fluvial de la regata Lastur.

Sin perjuicio del cumplimiento de lo dispuesto en la legislación en materia de aguas y de las condiciones que, en su caso, establezca el organismo de cuenca con respecto a las actuaciones con afección al dominio público hidráulico y sus servidumbres, así como sobre el vertido de aguas residuales a cauce, se aplicarán las siguientes medidas:

2.c.2.1.– Las actuaciones que se desarrollen en las márgenes de la regata Lastur deberán ser compatibles con lo dispuesto en el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV.

2.c.2.2.– Deberá ejecutarse una red de drenaje de las aguas de escorrentía generadas en la explotación de acuerdo con lo previsto en el documento «Evaluación de impacto ambiental de la cantera de mármol Duquesa, sita en Deba, Gipuzkoa. Documentación complementaria II», de modo que permita la recogida de todas las escorrentías del hueco de explotación, incluyendo la zona ocupada por las instalaciones de la cantera, así como las generadas en el vial de acceso y en el sistema lava ruedas.

El elemento final de la citada red de drenaje será un sistema de balsas de decantación dimensionado conforme a los cálculos hidráulicos necesarios para garantizar una retención de sólidos óptima y, en todo caso, para garantizar un vertido localizado y conforme en cuanto a los parámetros físico-químicos del agua a la normativa vigente.

Urak bildu eta tratatzeko sistema hori «Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak 2008ko maiatzaren 30ean emandako Ebazpenean ezarritako baldintzen arabera eraiki eta arituko da. Ebazpen horren bidez baimena eman zitzaion Mónica Pedreira Lanchas andreari, Duquesa eta Urkuluko harrobietan dekantazio-putzuak eraikitzeko Debako (Gipuzkoa) Lastur errekaren ezkerreko ertzeko polizia-gunean».

2.c.2.3.– Uraren kontsumoa, eta hondakin-uren sorrera eta isurketa gutxitze-aldera, jarduerak hainbat mekanismo izango ditu jardueran burutzen diren prozesu desberdinetako ura berrerabiltzeko.

Horretarako, sustatzaileak memoria tekniko bat landuko du jardueraren prozesu desberdinetako dekantazio-putzuetako urak berrerabiltzeko dauden aukeren bideragarritasuna aztertzeko; esaterako, haitza mozteko sistemetarako, ureztaketarako edo kamioiak garbitzeko.

Memoria eta horren ondoriozko proposamen zehatzak Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira, onartzeko.

2.c.2.4.– Aurreko idatz-zatietan aipatutako urak tratatzeko sistema guztiek irteerako kutxeta bana izango dute laginak hartzeko.

2.c.2.5.– Aurreko epigrafeetan aurreikusi diren hondakin-urak arazteko sistemak aldian-aldian garbitu behar dira, tratamendu-sistemaren etekinik onena bermatzeko eta uneoro erabilera gaitasun nahikoa eduki dezaten.

2.c.2.6.– Erregaien zama-lanak, olio aldaketak eta ibilgailuen mantentze-jarduerak nahiz tailerrean ohikoak diren jarduerak zola iragazgaitza eta isurketak jasotzeko sistema duen aldean egin behar dira, ezbeharrez isurketak eragin ditzaketen ondorioak arintzeko.

2.c.3.– Hautsa gutxitzeko neurriak.

Airearen kalitatea eta atmosferaren babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, honako beste neurri babesle eta zuzentzaile hauek ere hartuko dira:

2.c.3.1.– Jardueran ezin dira gainditu Airearen Kalitatea Ebaluatzeari eta Kudeatzeari buruzko urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuan ezarri diren sufre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren, nitrogeno oxidoen, partikulen, berunaren, bentzenoaren eta karbono monoxidoaren gehieneko kopuruak.

2.c.3.2.– Zulatze-lanetan, lan-tresneria guztiek hautsa jasotzeko gailuak izan beharko dituzte.

El citado sistema de recogida y tratamiento de aguas se ejecutará y funcionará de acuerdo con las condiciones establecidas en la «Resolución de 30 de mayo de 2008, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se autoriza a Mónica Pedreira Lanchas la ejecución de las obras de construcción de una balsa de decantación de las canteras Duquesa y Urkulu en la zona de policía de la margen izquierda de la regata Lastur, en el término municipal de Deba (Gipuzkoa)».

2.c.2.3.– Con objeto de reducir, tanto el consumo de agua, como la generación y vertido de aguas residuales, la actividad deberá incorporar mecanismos para la reutilización de estas aguas en los distintos procesos que se llevan a cabo.

Para ello, el promotor deberá elaborar una memoria técnica que analice las distintas alternativas viables para la reutilización de las aguas procedentes de las balsas de decantación en distintos procesos de la actividad, tales como los sistemas de corte de roca, riego y/o limpieza de camiones.

Dicha memoria técnica, junto con las propuestas concretas que, en su caso, resulten de ésta, deberá remitirse a esta Viceconsejería de Medio Ambiente, para su aprobación.

2.c.2.4.– A la salida de los distintos sistemas de tratamiento de aguas de la explotación se habilitarán sendas arquetas para la toma de muestras.

2.c.2.5.– Los sistemas de tratamiento de las aguas previstos en los epígrafes anteriores deberán ser limpiados regularmente de forma que mantengan en todo momento una capacidad útil suficiente y garantizar así un rendimiento óptimo del sistema de tratamiento.

2.c.2.6.– La carga y descarga de combustible, los cambios de aceite y el mantenimiento y reparación de los vehículos se realizarán en un área que disponga de solera impermeable y sistema para la recogida de derrames, con objeto de paliar los efectos de los vertidos accidentales.

2.c.3.– Medidas destinadas a aminorar las emisiones de polvo.

Sin perjuicio del cumplimiento de lo dispuesto en la normativa vigente en materia de calidad del aire y protección de la atmósfera, se adoptarán las siguientes medidas protectoras y correctoras:

2.c.3.1.– La actividad se desarrollará de forma que no se superen los valores límite que para las partículas se establecen en el Real Decreto 1073/2002, de 18 de octubre, sobre evaluación y gestión de la calidad del aire ambiente en relación con el dióxido de azufre, dióxido de nitrógeno, óxidos de nitrógeno, partículas, plomo, benceno y monóxido de carbono.

2.c.3.2.– En las operaciones de perforación, todos los equipos de trabajo deberán incorporar captadores de polvo.

2.c.3.3.– Agregatuak birrindu, sailkatu eta biltegiratzeko instalazioek partikula-igorpenak gutxitzeko gailuak izan beharko dituzte hauts asko sortzen den leku guztietan.

Uhal garraiatzaileak estalita egongo dira; birrindu eta sailkatzeko instalazioetan eta uhal garraiatzaileen arteko transferentzia puntuetan ere ixteko egiturak jarriko dira.

2.c.3.4.– Kamioien zama-lanak, ahalik eta hauts gutxien aireratuta eta harrotuta egin behar dira. Horretarako, zama-lanerako gunea itxita egon beharko da, ur-difusoreak edo beste edozein sistema eraginkor instalatu beharko da.

2.c.3.5.– Kamioiak igarotzen diren guneak ureztatzeko behar diren neurriak jarriko dira. Zolatutako azalerak mantendu eta garbitzeko lanak egingo dira hautsa ahalik eta gutxien zabaltzeko.

2.c.3.6.– Kamioiak harrobitik irten aurretik garbitzeko sistema bat izango da, dekantazio-putzuari lotuta, proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorako sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusi bezala.

2.c.3.7.– Ustiategiko hautsa murrizteko sistemari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, ohitura onen kodea ezarri eta harrobiko langileei sistema nola erabili irakatsi behar zaie. Zulatzaileetako hauts-biltzaileak eta zamatze-lanetan hautsa gutxitzeko sistemak erabili behar direla, pistak ureztatu eta kamioiak harrobitik irten baino lehen gurpilak garbitzeko sistema erabili behar dela ohartarazi behar zaie.

2.c.4.– Zaraten eta dardaren ondoriozko efektuak gutxitzeko neurriak.

2.c.4.1.– Leherketek 22-381-93 UNE Araua bete behar dute. Hain zuzen ere, proiektuaren atxikipen-eremuko eraikinetan erregistratzen den dardara ezin da izan arau horretan ezarritako mugez gaindikoa. Aire-uhinen presioari dagokionez, goreneko puntuan, ezin da izan 128 dB (L) baino handiagoa eraikinetan, eta, zehatzago esanda, leherketari begira dagoen fatxadan.

2.c.4.2.– Sustatzaileak harrobi inguruan bizi diren biztanleentzako informazio pertsonalizatu sistema bat jarri beharko du martxan, leherketek eragindako aire-uhinen eta bibrazioen ondorioak kontrolatu eta gutxitzeko aurreikusitako neurrien nondik norakoak ezagutu ditzaten.

2.c.4.3.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzeko den urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 24. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta sortuko den zaratari dagokionez, behar diren neurri guztiak hartuko dira lanen inguruan III. eranskineko B1 taulan

2.c.3.3.– Las instalaciones de trituración, clasificación y almacenamiento de áridos deberán incorporar dispositivos para la reducción de las emisiones de partículas, en todas aquellas áreas donde se generen cantidades significativas de polvo.

Las cintas transportadoras estarán cubiertas y las instalaciones de trituración y clasificación, así como los puntos de transferencia entre cintas transportadoras, estarán dotadas de estructuras de cierre.

2.c.3.4.– La carga de camiones se realizará minimizando las emisiones de polvo, mediante el cerramiento de la zona de carga, instalación de difusores de agua o cualquier método efectivo.

2.c.3.5.– Se dispondrá de los medios necesarios para el riego de las áreas de tránsito de camiones. Deberán realizarse labores de mantenimiento y limpieza de las superficies pavimentadas con objeto de minimizar la dispersión de polvo.

2.c.3.6.– Se dispondrá de un sistema para la limpieza de los camiones previo a su salida de la cantera, conectado a balsa de decantación, de acuerdo con lo previsto en la documentación aportada por el promotor para la evaluación ambiental del proyecto.

2.c.3.7.– Con objeto de optimizar al máximo el rendimiento de los sistemas de reducción de polvo instalados en la explotación, se deberá implantar un código de buenas prácticas para su utilización, instruyendo a los operarios de la cantera con relación a las mismas. Se incidirá en la correcta utilización de los captadores de las perforadoras, en la activación de los sistemas de minimización de polvo durante las actividades de carga y transporte, en el riego de pistas y en la utilización del sistema para lavado de las ruedas de los camiones previamente a su salida de la cantera.

2.c.4.– Medidas destinadas a aminorar los efectos derivados de los ruidos y vibraciones.

2.c.4.1.– Los proyectos de voladura deberán ajustarse a la norma UNE 22-381-93 de modo que las vibraciones registradas en las edificaciones comprendidas en el ámbito de afección del proyecto no sobrepasen los límites previstos en la misma. En cuanto a la presión de onda aérea, ésta no deberá superar los 128 dB (L), valor pico, en la fachada más expuesta de las edificaciones.

2.c.4.2.– El promotor deberá poner en práctica un sistema de información personalizada a los habitantes próximos a la cantera, de forma que éstos puedan conocer con detalle las medidas previstas para minorar y controlar los efectos de las vibraciones y onda aérea producidas por las voladuras.

2.c.4.3.– De acuerdo con lo previsto en el artículo 24 del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, la actividad deberá adoptar las medidas necesarias para que no trans-

ezarritako muga-balioak gainditu ez daitezen, betiere IV. eranskineko prozeduraren arabera ebaluatuta.

Era berean, neurri horiek ondorengo helburuak betetzen dituztela bermatu behar da:

– Zaratak egunez: etxebizitzen barruan zarata ezin da izan 40 dB (A) baino handiagoa Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00 eta 22:00ak bitartean leihoak eta ateak itxita, eta gehieneko maila ezin da izan 45 dB (A) baino handiagoa.

– Zaratak gauez: etxebizitzen barruan zarata ezin da izan 30 dB (A) baino handiagoa Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00 eta 08:00ak bitartean leihoak eta ateak itxita, eta gehieneko maila ezin da izan 35 dB (A) baino handiagoa.

2.c.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.5.1.– Jarduerak iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira, honelako hondakinak barne direla: indusketa hondakinak, obra-arloak prestatzeko eragiketetatik sortzen direnak, enbalajeak, baztertzen diren lehengaiak eta garbiketa lanetako soberakinak.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen balioztatzaile batengana eraman behar dira.

Hondakinak deuseztatzera bidali ahal izango dira baldin eta aldez aurretik horiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideraezina dela frogatzen bada soilik.

2.c.5.2.– Hondakindegira eraman behar diren hondakinak, hondakinak hondakindegian utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan eta hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat.

Lur-beteketa eta egokitzetara bideratu behar diren hondakinei dagokienez, horiek hondakin geldoen eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.5.3.– Lur-beteketetan eta lurzorua egokitzeko lanetan, gai kutsatzaileak A ebaluazioko balio adierazleen (EBA-A) azpitik dituzten materialak baimenduko dira bakarrik. Adierazle horiek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinak jasotzen ditu.

mita al medio ambiente exterior de las correspondientes áreas acústicas niveles de ruido superiores a los establecidos como valores límite en la tabla B1, del anexo III, evaluados conforme a los procedimientos del anexo IV.

Asimismo, dichas medidas deberán garantizar el cumplimiento de los siguientes objetivos:

– Ruidos diurnos: el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 40 dB (A) en su interior, medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 08:00 y 22:00 horas con las ventanas y puertas cerradas, ni los 45 dB (A) en valores máximos.

– Ruidos nocturnos: el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 30 dB (A) en su interior, medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 22:00 y 08:00 horas, con las puertas y ventanas cerradas, ni los 35 dB (A) en valores máximos.

2.c.5.– Medidas destinadas a la gestión de los residuos.

2.c.5.1.– Los diferentes residuos generados durante la explotación, incluidos los procedentes de excavaciones, los resultantes de las operaciones de preparación de los diferentes tajos, embalajes, materias primas de rechazo y de la campaña de limpieza, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o ambientalmente viable.

2.c.5.2.– Los residuos con destino a vertedero se gestionarán además de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados. Dichos residuos deberán de ser caracterizados conforme a la Decisión 2003/33/CE del Consejo, de 19 de diciembre de 2002, por la que se establecen los criterios y procedimientos de admisión de residuos en los vertederos con arreglo al artículo 16 y al anexo II de la Directiva 1999/31/CEE.

Los residuos con destino a relleno o acondicionamiento de terreno se gestionarán de acuerdo con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados.

2.c.5.3.– Únicamente se permitirá la deposición en rellenos o acondicionamientos de terreno de materiales con contenidos en contaminantes por debajo de los valores indicativos de evaluación VIE-A, recogidos en el anexo I de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

2.c.5.4.– Erabilitako olioei dagokienez, erabilitako industria-olioen kudeaketari buruzko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua aplikatuko da.

Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko dira.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitzaren gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

2.c.5.5.– Araudi hau betetzea errazte aldera, zeregin desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatuko dira. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte eta beraiek arduratuko dira langileei behar bezala betearazteaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean eta makineria mantentzeko lanak egitean, ezta hondakinik erreko ere.

2.c.6.– Kultur ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako gainerako xedapenak gorabehera, baldin eta ustiategiko lanetan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari; gero, beharrezkoa izanez gero, berak erabakiko du zer neurri ezarri.

2.c.7.– Paisaia eta ustiapenaren eraginpeko eremua leheneratzeko neurriak.

Erauzte-jarduerek ukituriko naturguneak leheneratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan eta arlo honetako gainontzeko arautegian ezarritakoa betetzeaz gainera, erauzketa-lanek ukituriko eremu guztiak leheneratu behar dira, are ustiapena amaitutakoan aldatzen direnak ere, nahiz eta aurkeztutako leheneratze planean agertu ez.

2.D.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa jardueraren titularrak proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da. Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

2.c.5.4.– Los aceites usados se deberán gestionar de conformidad con el Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, por el que se regula la gestión de los aceites industriales usados.

En tanto en cuanto no se proceda a la implantación de un sistema integrado de gestión autorizado en los términos previstos en el mencionado Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, se deberá dar cumplimiento a las previsiones contempladas en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hasta el momento de su entrega a gestor autorizado, el almacenamiento de aceites agotados se realizará en espacios bajo cubierta, en recipientes estancos debidamente etiquetados, sobre solera impermeable y en el interior de cubetos o sistemas de contención de posibles derrames o fugas.

2.c.5.5.– Con objeto de facilitar el cumplimiento de esta normativa, deberán disponerse sistemas de gestión de los residuos generados en las diferentes labores. Estos sistemas serán gestionados por los encargados de dichas labores, que serán responsables de su correcta utilización por parte de los operarios. En particular, en ningún caso se producirán efluentes incontrolados procedentes del almacenamiento de combustibles y productos y del mantenimiento de la maquinaria, ni la quema de residuos.

2.c.6.– Medidas destinadas a la protección del Patrimonio Cultural.

Sin perjuicio del cumplimiento de otras disposiciones de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, si en el transcurso de las labores se produjera algún hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico, se informará inmediatamente al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa para que, en su caso, establezca las medidas a adoptar.

2.c.7.– Medidas destinadas a la restauración paisajística y del espacio afectado por la explotación.

Sin perjuicio del cumplimiento de lo establecido en el Decreto 115/2000, de 20 de junio, sobre restauración del espacio natural afectado por actividades extractivas y demás normativa que resulte de aplicación en relación con la materia, se restaurarán todas las áreas afectadas por la labor extractiva, incluidas aquellas que no figurando en el plan de restauración presentado resulten alteradas al término de la explotación.

2.D.– Programa de Vigilancia Ambiental.

El Programa de Vigilancia Ambiental deberá ejecutarse de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el titular de la actividad para la evaluación de impacto ambiental del proyecto, debiendo añadirse los controles que a continuación se detallan.

2.d.1.– Aire-uhinaren dardara eta presioa kontrolatzea.

Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean aurreikusitakoa kaltetu gabe, leherketek Ugarte Berri baserrian sortzen duten aire-uhinaren dardara eta presioa kontrolatuko da, leherketen dardarak kontrolatzeari buruzko UNE 22-381-93 Arauak hala agintzen duenean.

Neurketak aipatutako UNE 22-381-93 Arauan begietsitako metodologiaren arabera egingo dira.

Aurreko neurketen emaitzak aurkezterakoan, leherketei buruzko datuak eta aire-uhinaren hedadura baldintzatzen duten faktore meteorologikoak adieraziko dira.

2.d.2.– Zarataren kontrola.

Sustatzaileak proposatutako leherketaz bestelako zarata hiru hilean behin neurtuko da.

Lehenengo urtean zehar izandako emaitzak aztertuta, sustatzaileak neurketen aldikotasuna aldatzea proposatu ahal izango du.

2.d.3.– Hautsaren kontrola.

Esekitako partikulak kontrolatzeko kaptadoreen kokaguneari dagokionez proiektuaren sustatzaileak bidalitako agirietan proposatutakoaren arabera neurtuko dira. Neurketen maiztasunari dagokionez, neurketak hiru hilean behin egingo dira.

Neurketak Airearen Kalitatea Ebaluatzeari eta Kudeatzeari buruzko urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuan (sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa, nitrogeno oxidoak, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa hartzen ditu kontuan) ezarritakoaren arabera egin behar dira.

2.d.4.– Uraren kalitatearen kontrola.

2.d.4.1.– Isurketak baimentzen dituen erakunde eskudunak xedatutakoari kalterik eragin gabe, solidoen dekantaziorako sistemen irteeran efluenteen kalitatea aztertuko da. Horretarako, jarduera hasten denetik, urte betez ondoko parametroak neurtuko dira hilero:

– Ph
– Eroankortasuna
– Solido esekiak
– Olioak eta koipeak
– Hidrokarburoak

Zehaztutako denbora-epea igaro ondoren, isurketak baimentzen dituen erakunde eskudunak erabakiko du zein izango den kontrolen aldikotasuna.

2.d.4.2.– Lastur errekako uren kalitatearen azterketak egingo dira, isurketa puntutik ibaian gora eta behera. Horretarako, «Debako (Gipuzkoa) Duquesa marmolharrobiak ingurumenean duen eraginaren Ebaluazioa.

2.d.1.– Control de vibraciones y presión de onda aérea.

Sin perjuicio de lo previsto en el estudio de impacto ambiental, se realizará un control de vibraciones y presión de onda aérea generada por las voladuras en el caserío Ugarte Berri, cuando así lo exija la Norma UNE 22-381-93 sobre control de vibraciones por voladuras.

Las mediciones se realizarán conforme a la metodología contemplada en la citada Norma UNE 22-381-93.

En la presentación de los resultados correspondientes a las mediciones anteriores, se indicarán todos los datos relativos a la voladura, así como de los factores meteorológicos que condicionan la propagación de la onda aérea.

2.d.2.– Control del ruido.

El control de ruido de origen distinto al de las voladuras que ha propuesto el promotor deberá realizarse con periodicidad trimestral.

A la vista de los resultados obtenidos durante el primer año podrá modificarse la periodicidad de los controles a propuesta del promotor.

2.d.3.– Control de polvo.

El control de partículas en suspensión se realizará de acuerdo con lo propuesto en la documentación remitida por el promotor del proyecto en cuanto a la localización de los captadores. En cuanto a la periodicidad de las medidas, se realizarán con una periodicidad trimestral.

Las mediciones se realizarán de conformidad con el Real Decreto 1073/2002, de 18 de octubre, sobre evaluación y gestión de la calidad del aire ambiente en relación con el dióxido de azufre, dióxido de nitrógeno, óxidos de nitrógeno, partículas, plomo, benceno y monóxido de carbono.

2.d.4.– Control de la calidad de las aguas.

2.d.4.1.– Sin perjuicio de lo que establezca el órgano competente para la autorización de vertido, se realizará un análisis de la calidad de los efluentes a la salida de los sistemas de decantación de sólidos. Para ello, durante el primer año desde el inicio de la actividad, se medirán con una periodicidad mensual los siguientes parámetros:

– Ph
– Conductividad
– Sólidos en suspensión
– Aceites y grasas
– Hidrocarburos

A partir de dicho periodo la frecuencia de los controles será la que se establezca en la autorización de vertido del órgano competente.

2.d.4.2.– Se efectuarán análisis de la calidad de las aguas de la regata Lastur aguas arriba y aguas abajo del punto de vertido. A tal efecto, en los puntos señalados en el documento «Evaluación de impacto ambiental de

II. Agiri osagarriak.» agirian adierazitako puntuetan IBMWP indize biotikoa eta ondorengo parametro fisiko-kimikoak kalkulatuko dira: pH-a, eroankortasuna, olio eta koipeak eta solido esekiak. Parametro fisiko-kimiko horiek Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean ezarritako maiztasunarekin egingo dira. Indize biologikoa kalkulatzeko berriz, urtean bi lagin hartuko dira: bat udaberrian eta bestean uda garaian.

2.d.5.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du; bertan ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean proposatzen diren betebehar guztiak eta Ebazpen honetan ezarritakoak bilduko dira.

Programa horrek ondo zehaztu beharko ditu kontrolatu beharreko parametroak, eta, orobat, parametro bakoitzaren erreferentzia-balioak, lagina hartzeko eta azterketa egiteko metodologia, kontrol-puntuak kartografian duten kokapenaren xehetasuna, maiztasuna eta azterlana egiteko aurrekontu zehatza jaso beharko ditu.

2.d.6.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honi bidaliko zaizkio. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Esandako txostenean emaitzen analisia jasoko da, epe horretan emandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausa eta konponbideak eta, halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldez aurretik ez bada egin.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez eta Herri Administrazioen ikuskaritza-zerbitzuen esku egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpena izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Babes neurriak eta neurri zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, baita neurtu behar diren parametroak, neurketen maiztasuna eta parametroen mugak ere, araudi berriak indarrean jartzeak edo inplikatutako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharrak hala gomendatzen duenean. Halaber, bai babes neurriak eta neurri zuzentzaileak bai ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, sustatzaileak eskatuta zein ofizioz, ingurumena zaintzeko programaren emaitzen arabera.

la cantera de mármol Duquesa, sita en Deba, Gipuzkoa. Documentación complementaria II», se calculará el índice biótico IBMWP y los siguientes parámetros fisicoquímicos: pH, conductividad, aceites y grasas y sólidos en suspensión. Para los parámetros físico-químicos la periodicidad de las mediciones será la prevista en el estudio de impacto ambiental. Para el cálculo del índice biológico se tomarán dos muestras anuales, una en primavera y otra en estiaje.

2.d.5.– Documento refundido del programa de vigilancia ambiental.

El Promotor deberá elaborar un documento refundido del programa de vigilancia ambiental, que recoja el conjunto de obligaciones propuestas en el estudio de impacto ambiental, y las establecidas en la presente Resolución.

Este programa deberá concretar los parámetros a controlar con indicación de valores de referencia para cada parámetro, la metodología de muestreo y análisis, la localización en cartografía de detalle de los puntos de control, la periodicidad de los mismos y un presupuesto detallado para su ejecución.

2.d.6.– Remisión de resultados del programa de vigilancia ambiental.

Los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el programa de vigilancia ambiental quedarán debidamente registrados y se remitirán a esta Viceconsejería de Medio Ambiente. Dicha remisión se hará con una periodicidad anual y los resultados del programa de vigilancia ambiental deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad especializada en temas ambientales. Dicho informe consistirá en un análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este periodo, sus posibles causas y soluciones, así como el detalle de la toma de muestras en los casos en los que no se haya especificado de antemano.

Sin perjuicio de la normativa que sea de aplicación en cada caso, los diferentes datos se almacenarán por parte del promotor en un soporte adecuado durante al menos dos años, estando a disposición de los servicios de inspección de las Administraciones Públicas.

2.E.– Las medidas protectoras y correctoras, así como el programa de vigilancia ambiental podrán ser objeto de modificaciones, incluyendo los parámetros que deben ser medidos, la periodicidad de la medida y los límites entre los que deben encontrarse dichos parámetros, cuando la entrada en vigor de nueva normativa o cuando la necesidad de adaptación a nuevos conocimientos significativos sobre la estructura y funcionamiento de los sistemas implicados así lo aconseje. Asimismo, tanto las medidas protectoras y correctoras como el programa de vigilancia ambiental podrán ser objeto de modificaciones a instancias del promotor de la actividad, o bien de oficio a la vista de los resultados obtenidos por el programa de vigilancia ambiental.

2.F.– Ebazpen honetako aurreko idatz-zatietan xedatu dena gorabehera, sustatzaileak agiri hauek bidali behar dizkio Ingurumen Sailburuordetzari, honek onar ditzan:

2.f.1.– Ebazpen hau argitaratzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean 1:1.000 eskalako planoa, proiektuaren barruan garatuko diren ekintza guztien espazioeremua adierazita, Ebazpen honetako 2.A idatz-zatian xedatutakoari jarraituz.

2.f.2.– Ebazpen hau argitaratu eta hiru hilabeteko epean, dekantazio-putzuko urak berrerabiltzeko aukeren bideragarritasuna aztertzen duen memoria teknikoa eta ondoriozko proposamen zehatzak, Ebazpen honetako 2.c.2.3 idatz-zatian aurreikusitakoari jarraituz.

2.G.– Horrezaz gain, proiekturen sustatzaileak ingurumen-organo honi Ebazpen honetako 2.d.5. paragrafoan aipatutako ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina bidali beharko dio, espedientean sartzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 47.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen hau jarduera lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileei buruzko txostenaren ordezkoa da, ondorio guztietarako.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8. artikuluaren arabera, bi urteko epea ezartzea proiektua gauzatzen hasteko, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

5.– Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.6. artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

6.– Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 25a.

Ingurumen sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

2.F.– Sin perjuicio de lo dispuesto en anteriores apartados de esta Resolución, el promotor deberá remitir a la Viceconsejería de Medio Ambiente, para su aprobación, los documentos siguientes:

2.f.1.– En el plazo de un mes desde la publicación de la presente Resolución, el plano a escala 1:1.000 en el que se defina el ámbito espacial del proyecto para el conjunto de acciones que se prevé desarrollar, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2.A de esta Resolución.

2.f.2.– En el plazo de tres meses desde la publicación de la presente Resolución, la memoria técnica que analice distintas alternativas viables para la reutilización de las aguas procedentes de las balsas de decantación, junto con las propuestas concretas que, en su caso, resulten de ésta, de acuerdo con lo previsto en el apartado 2.c.2.3 de esta Resolución.

2.G.– Asimismo, el promotor del proyecto deberá remitir a este órgano ambiental para su incorporación al expediente, el documento refundido del programa de vigilancia ambiental previsto en el apartado 2.d.5 de esta Resolución.

3.– Informar que, de acuerdo con el artículo 47.3 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, esta declaración de impacto ambiental suple, a todos los efectos, al informe de medidas correctoras necesario para el otorgamiento de la licencia de actividad.

4.– Imponer, de acuerdo con el artículo 47.8 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, un plazo para el inicio de la ejecución del proyecto de 2 años, a contar desde la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco. Transcurrido dicho plazo sin haberse procedido al inicio de la ejecución del proyecto, por causas imputables al promotor, la Declaración de Impacto Ambiental perderá toda su eficacia. No obstante, el órgano competente podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución si existieran causas debidamente justificadas.

5.– Informar que, de acuerdo con el artículo 4.6 del Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, el promotor del proyecto deberá comunicar al órgano ambiental, con la suficiente antelación, la fecha de comienzo de la ejecución del mismo.

6.– Ordenar la publicación de la presente Declaración de Impacto Ambiental en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2008.

El Viceconsejero de Medio Ambiente,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.